



PRENTSA OHARRA

JARRERA SEXISTAK SALATU DITU UDALAK

Pasaia Udalak joan den asteburuan jaien harira Lezon gertatutako jarrera sexistak salatu ditu, eta herritarrei astearterako deitua izan den elkarretaratzean parte hartzeko deia luzatu die.

Hain zuzen ere, gazte bat atzeman zuten, joan den larunbatean, hilak 3, taberna bateko kanpoaldean, ezkutuan, leiho batetik nesken komun barrura argazkiak ateratzen. Honen aurrean Udalak adierazi nahi du, publikoki eta aho batez, horrelako gertaerak ez direla onartzen gure jendartearen, eta horregatik, erakunde, elkarte eta herritarrek lanean jarraitu behar dutela, emakumeak aske eta jazarpen matxistatik libre bizi daitezen.

Helburu horretan, instituzioek eta herritarrek bat egin behar dute, guztion ardura baita halako jarreraren aurrean erantzun egokia ematea eta indarkeria sexistak ekiditeko baliabideak jartzea. Horregatik, Lezoko Udalak beharrezko eta premiazko jotzen du mekanismo guztiak artikulatzea berdintasunezko gizartea eraikitzeko, eta bide horretan hasitako bidearekin jarraituko du berdintasun-politikak hauspotuz edota indarkeriaren aurkako ekintzak antolatuz.

Hori dela eta, Pasaia Udalak bat egin du Sorginak taldeak egindako elkarretaratze deialdiarekin. Hitzordua, **datorren asteartean da, hilaren 13an, arratsaldeko 19:30ean Gurutze Santuaren plazan** eta herritarrei bertan parte hartzeko deia luzatu die.

NOTA DE PRENSA

EL AYUNTAMIENTO DENUNCIA ACTITUDES SEXISTAS

El Ayuntamiento de Pasaia ha denunciado las actitudes sexistas que han tenido lugar los días de fiesta en Lezo, y han animado a la ciudadanía a participar en la concentración organizada para el 13 de junio, martes.

Y es que, el pasado sábado, 3 de junio sorprendieron a un joven a las afueras de un bar sacando fotos a escondidas desde una ventana al baño de mujeres. Ante este hecho el Ayuntamiento quiere mostrar públicamente y de manera unánime el rechazo a este tipo de comportamientos, subrayando que este tipo de hechos no tienen cabida en nuestra sociedad, y por tanto, se debe seguir trabajando tanto desde las instituciones y movimientos asociativos, como desde la ciudadanía, para que las mujeres puedan vivir libres de violencia y acoso machista.

Para ello, instituciones y ciudadanía deben aunar esfuerzos y ofrecer todos los medios a nuestro alcance en aras de evitar este tipo de actitudes machistas hacia las mujeres y continuar la lucha contra la violencia machista. Se trata de una responsabilidad conjunta. Por ello, el Ayuntamiento de Pasaia considera necesario y urgente articular todos los mecanismos necesarios para construir una sociedad igualitaria, y continuará con el camino emprendido hacia la igualdad, promoviendo políticas de igualdad y organizando acciones contra la violencia machista.

El Ayuntamiento de Pasaia se ha sumado a la convocatoria de **concentración** del grupo Sorginak de Lezo. La cita será el **próximo martes, día 13 de junio, a las 19:30 horas** en Gurutze Santuaren plaza y desde el Ayuntamiento han animado a la ciudadanía a participar en la concentración.